

Sarraski isilarazia

Koldo Sagasti

Sare sozial batek duela hamar urte argitaratutako argazkiaren oroitzapena ekarri dit gaur akordura. 2010eko abuztua zen eta brigada bateko kideok urtebete lehenago Israelgo Armadak burututako sarraskiaren inguruko testigantzak jasotzen ari ginen Gazako zerrendan. Armada sionistak “Berun urtua” ezizenez bataiatu zuen 2008ko abendutik 2009ko urtarrilera bitartean kokagune palestinarreko populazioaren kontra zuzendutako erasoak. 1.434 palestinar erail eta bi milioi biztanleren bizitokiko azpiegitura oinarritzkoenak birrindu zituzten. Urtebete geroago, erretratuak erakusten duen bezala, nabariak

ziren triskantzaren ondorioak: eraikin suntsituen hondarrak, bonbardaketetan bizitokia galdu zutenak biltzeko eraikitako behin-behineko kanpamenduak. Gerora ere, beste hondamendi batzuk etorriko ziren, besteak beste, 2014ko “Babes hesia” izeneko operazio militarra, zeinean ejerzito okupatzaileak Gazako 2.310 hiritar garbitu zituen. Edo azken urtean “Itzuleraren martxa” izeneko ekimen herrikoiaren aurka bideratutako erasoak. Asteroko manifestazio bake-tsuen aurkako oldarraldietan gudaroste sionistako frankotiratzaileek hirurehun gazatar erail eta bizi arteko zauriak eragin dizkiete 30.000ori baino gehiagori.

Hamarkada pasa da argazki hura atera nuenetik eta sarraski bakoitzeko hondakinak aurrekoaren hondakinen gainean pilatu dira etengabe. Azken asteotan ere Israelek Gazako Zerrenda bonbardatzen dihardu. Abuztuaren 6tik aurrera erasoak ez du etenik izan, eta hamarnaka lagun erail dituzte tarte horretan. Baina horren aipamenik nimiñoena ere ez da egin albistegietan. Zenbaterainokoa izan behar du hildakoen kopuruak nazioarteko prentsak fokua Gazan jar dezan? Zenbat egunetako bonbardaketa? Gazatarren okela kiloak oso merke kotizatzen du, nonbait, arreata mediatikoa- ren azokan. •

«Neureak»

Xabier Izaga
Gonzalez

Ordurako burua nahasita omen zuen. Ekitaldi bat zegoen Gasteizko Foru Plazan. Bero sapa. «Ama, hemen geratuko gara, gerizpean». Amak ezetz eta ezetz, «nik behera nahi dut». «Baina nola ipiniko zara eguzkitan!». «Behera eramateko esan dizuet!». Tira, behera. Urtu egingo zela pentsatu genuen amaren gurgil-aulkia behe alderako bidean aurrera generamala, eta amak, nahi zuen lekura iristean lasaiago: «Nik neureekin nahi dut». Orduan ikusi genituen preso- en senideak. Burua nahasita...?

Ez dut gure amaren hagiografiarik idazteko asmorik. Besteak beste, egunotan, joan den zapatuan hil zenetik, jende askok, batez ere bere jendeak, ezagutzen duela egiaztatu dudalako, eta ezagutzen duen jendeari ez diot zertan esanik nola-koa zen. Ez nator, ez, amaren gainean hitz egitera, haren eta gure ondoan izan zareten guztioi esker ona adieraztera baizik. Egunkari honetako lankideengandik hasita, amaren eta gure lagun, ezagun eta ezezagun askok haren azken agurrean bertatik bertara egoterik izan ez bazenu- ten ere, hantxe izan zineten, zinez.

Domekan, beilatokira iritsi ginenean, zain genituen amaren zerraldoaren gainean Etxerateko lagunaren kinkea, hain- beste urtean amaren sama babestu duen lepo-zapia eta lore sorta ederra. «Bereak» hantxe zineten, hantxe zinetenez. Eskerrik asko bihotzetik. Eta eskerrik asko zuen eta gure lagun Felix Placerri, ama joan aurretik eta joandakoan ere berarekin, gurekin izan delako. Eskerrik asko denoi «bereak», gureak izateagatik. Lagun fisikari bati galdetu behar diot nola litekeen gorputz txiki batek horren hutsune handia utzi izana. •